

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure aplikazioa aurrera eraman ahal izateko hainbat baliabide izango dira funtsezkoak, atal honetan behar beharrezkoak landuko ditugu. Alde batetik, baliabide fisiko batzuk beharko ditugu, beste aldetik baliabide intelektualak behar ditugu, batez ere ordenagailuekin lan egiteko abilezia, egindako lan guztia ordenagailuz egingo dugu-eta. Azkenik, egin beharrekoa egiteko aukera izateko finantza baliabideak beharko ditugu

Baliabide fisikoen aldetik, gauza asko beharko ditugu, behar beharrezkoa lokala izango da, lan egiteko tokia, lasaia izango dena eta Uggasarekin hori lortu dezakegu, lokal bat non ura, gasa eta argia lokalarekin batera badatoz. Honen barruan ezinbestekoak diren beste baliabide batzuk edukiko ditugu, hala nola, mahaiak, aulkiak, arbela eta hauetan lan egiteko materiala (arkatzak, ezabagomak, boligrafoak eta arbelarako errotulagailuak). Atala honen barruan garrantzi handiena ordenagailuak izango du, gure lan guztiak egin ahal izateko baliabidea baita. 4 pertsona garenez, lau ordenagailu erosiko ditugu, denak oso onak izango dira, gure aplikazioa eta honekin batera datozen gauzak (webgunea, iraganak, etab.) sortzeko gai izan beharko dira inongo arazorik eman gabe.

Baliabide fisikoez gain, baliabide intelektualak ere behar ditugu gure proiektua aurrera ondo eraman ahal izateko. Lehenik eta behin, ezinbestekoa da ordenagailuekin lan egiteko jakinduria eta esperientzia izatea, horretarako, Oier Luqui dugu. Bi gauza horiek ikasketen bidez lortu ditugu, eskolan ordenagailuekin gauzak egiteko baliabideak erakutsi dizkigute eta berdina gertatzen da programazioarekin. Beraz, webgune bat eta aplikazioa programatzeko abileziaz gain, programazio hori zuzentzeko gai den norbait behar dugu taldean, Mikel Irizar izango da, pertsona honek webgunea eta aplikazioak testatuko ditu bai merkatura irten baina lehen eta baita ere edozein eguneraketa aplikazioan jarri baino lehen. Enpresak arrakasta izateko garrantzitsua da eskaintzen den zerbitzua ondo egotea, akatsik gabe, baina jendeak erabili ahal izateko ezaguna izan behar da mundu mailan, horretarako iragarkiak egiteko errektasuna duen norbait dugu, ideia onak eta zehatzak, ikusleen arreta deitzeko, Naier Ezkerren lana izango da. Abileziekin amaitzeko, zenbakiakin lan egiteko errektasuna duen norbait eta enpresa bat administratzen dakien norbait behar dugu, honetarako, Danel Zabaleta edukiko dugu.

Azkenik, baliabide finantzarioak izango ditugu, hau da, mailegua eskatzea proiektuaren hasieran honen oinarriak ezartzeko. Hasiera batean, guk, enpresaren sortzaileok, dirua jarriko dugu oinarritzkoa den material guztia lortu ahal izateko Bakoitzak 5000€ jarriko ditu. Garestiagoak diren gauzetarako bankuari eskatuko diogu mailegu bat, 100.000€-takoa izango da, aplikazioaren sorkuntzarako behar-beharrezkoak diren gauzetan inbertituko dena.

